

Buletineko gaiak:

1. Haurtzaro Ikastolako motxila

- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Apartekoak

Berri orokorrak

1. Haurtzaro Ikastolako motxila erosteko aukera



Dagoeneko denek dakizuenez, aurtengo matrikulazio kanpainak **motxila urdin** bat du oinarri.

Zuen eskaerei erantzunez, horrelako motxilak salgai jartzea erabaki dugu. Horretarako, baina, aurrez jakin behar dugu zenbatek duzuen erosteko interesa.

15 euroko prezioan aterako ditugu, eta eskuratu nahi duzuenek inprimaki honetan egin behar duzue eskaria: <https://forms.gle/vEE4XiWW4Epj5T6>

Eskolaz kanpoko ekintzak

1. Haurtzaro Mendi Taldearen irteera: urtarrilak 23

Igande honetan, urtarrilak 23, egingo du Haurtzaro Mendi Taldeak aurtengo lehen irteera, goizez, Oiartzunen: **Elorrietako gainera joango dira mendizaleak**, ikastolako aparkalekutik aterata. **Informazio guztia atxikitako orrialdean** duzue.

Izena, berriz, inprimaki honetan eman dezakezue: <https://forms.gle/XVBxBWAFTConTfKp6>

Gaur itxiko dugu apuntatzeko epea, 16:30ean. Animatu!



Apartekoak

1. Hots jostailu tailerra

Azaroan zuritu eta moztutako kainaberekin **hots jostailu tailerra** egingo dute bihar larunbata, **urtarrilak 22, 16:30ean Soinuenea**-Herri Musikaren Txokoaan.

Abaraxkatik eta Soinueneatik animatzeko deia egin dute: **"Zatoz zu ere turutak egitera!"**.

